

# Abarak

UNAI BREA

## Ikusmenak egiten gaitu gizaki, edo alderantziz

*Ensaio sobre a cegueira*. Jose Saramago.  
(Caminho, 1995; gaztelaniaz, 2003, Santillana)

OPORRAK, LASAITASUNA... Liburu batzuk ez ei dira gomendagarriak pilak kargatzen ari garen sasoirako, baina hala ere ausardia eduki dut, polizia-nobela merke biren artean, Jose Saramagoren *Ensaio sobre la ceguera* irakurtzeko, bigarrenez gainera! Gaztelaniaz eman dut izenburua, ohartu zaitezte mesedez; pentsatzen dut egilea bera ez dela asaldatuko jatorrizko portugesa hemen ez aipatzeagatik, iberismoaren defendatzailearik sutuena denez gero.

*Ensaio sobre la ceguera* Saramagoren eleberririk onena da kritika-egile eta irakurle gehienek ustez. Berriki filma egin denez, Julianne Moore eta guzti, ezagutuko duzue argumentua: denbora laburrean, herrialde bateko biztanle guztiak itsu geratzen dira, bat izan ezik. Gizarte-egiturak hankaz gora jartzen ditu



epidemiak, eta kaosak hartzen du haren lekua. Baina badago logikarik kaos horretan, izan ere, itsumenak eragin duena beste gizarte mota bat baino ez da, oiha-naren legea esaiozue nahi baduzue. Fuera konbentzioak, ongi etorri biziraupen hutsa, indartsuak ahula zapaltzea zaborretatik hartutako janari puska erdi usteldu bat lortzeko. Hori da protagonista nagusiaren begietatik ikus dezakegun errealitate latza, horregatik utzi du Saramagok pertsona bat epidemiatik libre: irakurlearekiko bitartekaritza egin dezan. Behin eta berriz, nobelako pertsonaiek esaten dute gizatasuna galdu dutela ikusmenarekin batera, itsuen mundu horretan denak animalia bihurtzen hasita daudela. Baina nobelak aurre-

ra egin ahala konturatuko gara egileak esan nahi duena aurkakoa dela. Apainkeriak kenduta, ez baitira hain desberdinak ikus dezakegunon mundua eta itsuena. Agian pertsonak, benetako pertsonak, behin ikusmena galdua gelditzen den animalia hori besterik ez gara.


donostiakultura.com



<b>Urriak 10-11</b>	<b>UNERWARTET (EZUSTEKOAI), Mikel Aristegi</b> Dantza • Antzoki Zaharra • 20:00
<b>Urriak-Azaroak 31-1</b>	<b>BABILONIAKO LOREAK, FTI Antzerkiola Imaginarioa</b> Antzerkia • Gasteszena (Egia K.E.) • 20:00
<b>Urriak-Azaroak 31-6</b>	<b>FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN XX. ASTEA</b> Zinema • Antzoki Zaharra
<b>Azaroak 5</b>	<b>ANARI "IRLA IZAN"</b> Musika • Gasteszena (Egia K.E.) • 20:30
<b>Azaroak 13</b>	<b>NOVA CANÇÕREN 50 URTE</b> Letra eta musika: Marc Parrot Imanol Oroituz Musika • Imanol Larzabal Antsoa (Lugaritz K.E.) • 21:00
<b>Azaroak 21</b>	<b>VIII. NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA</b> Musika • Victoria Eugenia Antzokia • 19:00
<b>Abenduak 1</b>	<b>MIKEL LABOA 180°</b> Musika • Victoria Eugenia Antzokia • 20:00
<b>Abenduak 4</b>	<b>AXURI BELTZA, Argia Dantza Taldea</b> Dantza • Victoria Eugenia Antzokia • 20:00
<b>Abenduak 13-14</b>	<b>MAGIFIQUE. TCHAIKOVSKI SUITES, Malandain Ballet Biarritz</b> Dantza • Victoria Eugenia Antzokia • 20:00
<b>Abenduak 17</b>	<b>RUPER ORDORIKA "HAIZEA GARIZUMAKOA"</b> Musika • Antzoki Zaharra • 21:00
<b>Abenduak 18-20</b>	<b>AITAREKIN BIDAIA, Hika Teatroa</b> Antzerkia • Antzoki Zaharra • 20:00
<b>Abenduak 23</b>	<b>GARI</b> Musika • Victoria Eugenia Antzokia • 20:30